

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
HIZKUNTZA ETA KOMUNIKAZIO TREBETASUNAK 1	151325	2024-2025
Titulazioa	Maila	Seihilekoa
HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA	3.a	1.a
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
DERRIGORREZKOA	6	EUSKARA
Irakaslea(k)		
JAIONE IBARRA		

Justifikazioa
Ikasgai honen bidez hiru arlo nagusi hauek landu nahi dira: 1. Hizkuntza arloko komunikazio trebakuntza. Irakasleek adierazpena trebatuko da, ahoz eta idatziz, eta euskara maila desberdina duten ikasleei, bakoitzari bere ezagutza mailatik, aurrerapenak egiten lagunduko zaio. 2. Hizkuntzaren erabileraren hausnarketa metalinguistikoa. Ikasgai honetako trebakuntzaren bidez egiten den hausnarketa metalinguistikoa Hizkuntzaren Didaktikaren marko teorikoa eraikitzeke erabiliko du ikasleak. Horrela hizkuntzaren didaktikako irakaskuntza edukia modu objektibo eta behagarrian deskribatuko du. 3. Umeen zailtasun eta mugak konstatatu eta identifikatzen ikasiko da. Hizkuntzaren funtzionamenduaren ikuspegi horretatik, diskurtso desberdinen jabekuntza prozesuaren bilakaera eraiki eta ezagutuko da, fase guztiak deskribatuz.

Aurrebaldintzak
Ez dago

Gaitasunak
Gaitasun orokorrak GO3. AHOZKO KOMUNIKAZIOA Hitzen bidez norberaren ideiak, ezaguerak eta sentimenduak argi eta egoki adieraztea, egoeraren eta entzuleen ezaugarrietara egokituz, haien ulerkuntza eta atxikimendua lortzeko. 3. menderatze maila: Entzuleak erraz limurtzea eta atxikitzea, mezua eta bitartekoak egoeraren eta entzuleen ezaugarrietara egokituz. • Entzuleengan etikoki eragiten du. • Ideiak argitzeko adibideak, analogiak, metaforak eta beste baliabide batzuk erabiltzen ditu egoki. • Aurretiaz ezarritako egoeretara eta/edo taldeetara egokitzen du argumentazioa. • Entzuleen parte hartzea sustatzen du eta era konstruktiboan galdetzen du elkarriketa lortzeko asmoz. • Mezuaren itxura egoeretara egokitzen du.

Berariazko gaitasunak

BG1.- Hizkuntzaren irakaskuntza ikuspegia finkatu, eta irakaskuntza eduki nagusia mugatu.

ADIERAZLEAK:

- Hizkuntzaren irakaskuntzaren ikuspegi komunikatiboari lotutako oinarrizko nozioak erabili eta erlazionatzen ditu.
- Hizkuntzaren irakaskuntzaren oinarrizko edukiak identifikatu eta justifikatzen ditu.

BG2: Komunikazio hizkuntza egokitasunez eta zuzentasunez erabili irakaskuntza jardueran.

ADIERAZLEAK:

- Gelako jarduerarekin lotura duten zenbait testu genero sortzen ditu eta hartutako erabakiak arrazoitzen ditu ezagutza teorikoetan oinarrituz.
- Diskurtso eredu desberdinetako testu generoak eraikitzeke abileziak identifikatu eta formulatzen ditu, testuen ezaugarri nagusiak bereiziz.

BG3: Hizkuntzaren didaktikako irakaskuntza edukia, hau da, testuak, modu objektibo eta behagarrian deskribatu.

ADIERAZLEAK:

- Diskurtso eredu desberdinetako testu generoen ezaugarriak deskribatzen ditu.
- Testuen ezaugarrietan oinarrituta, genero desberdinak eraikitzeke abileziak identifikatu eta formulatzen ditu.

BG4.- 3-6 urteko umeen gaitasun komunikatiboa deskribatu.

ADIERAZLEAK:

- Umeen produkzioak aztertu eta ahozko adierazpenaren diagnostikoa egiten du, zailtasunak eta beharrian komunikatiboak bereiziz.
- Umeen produkzioetan identifikatutako zailtasunak irakaskuntza eduki bezala proposatzen ditu.



Garapen Jasangarrirako Helburuen eta Laudato si' Helburuen presentzia ikasgaian

Irakasgai honek honako GIHak zeharka ukituko ditu:



4.GHI. Kalitatezko hezkuntza. 6.OLS Hezkuntza ekologikoa: Ikaslea gai da hezkuntzaren berezko balioaz jabetzeko eta bere garapenerako dituen hezkuntza-beharrak aztertu eta identifikatzeko.

Ikasleak ezagutzen du adin desberdinetako haurrek desberdin hitz egiten dutela eskolara heltzean eta bere lana izango dela haurren gaitasun komunikatiboa aberastea. Horretarako ezagutu behar du diskurtso mota bakoitzeko ezaugarriak zeintzuk diren eta horietatik bere gelako haurrek zeintzuk erabiltzen dituzten eta zeintzuk diren irakatsi beharrekoak. Horrela hasieran gelako haurren artean egon daitezkeen desorekak gainditzeko joango dira eta ikasle guztiek aukera izango dute euren gaitasun komunikatiboa garatzeko eta hobetzeko.

Edukiak

1. OINARRIZKO KONTZEPTUAK: Ekintza komunikatiboak; diskurtso motak, testuak eta testu generoak; eragiketa eta abilezia diskurtsiboak
2. HITZALDIA
3. DESKRIBAPEN TESTU ESPOSITIBOAK
4. AZALPEN TESTU ESPOSITIBOAK
5. TESTU INJUNTIBOAK
6. NARRAZIOAK ETA ERRELATOAK
7. ZUZENKETA PLANTILEN DISEINUA, haurren testuak aztertze

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Ikaslearen esperientziak azaleratu: ikaslearen aurrezagutzak mobilizatu eta esperientziak azaleratzeko, ikaslearen arteko eta irakasle-ikaslearen arteko interakzio estrategia bultzatuko da. Horrez gainera, ikasgaian lantzen diren testu mota desberdinen hasierako produkzioak egingo dira, ahozkoak zein idatziz. (%10)

Behaketa gidatua eta irakurketa: Testu eredu desberdinen behaketa gidatua (plantilarekin edo galdetegiarekin) eginez, testu azterketa egingo dute ikasleek, bai testu arketipoak, zein haurren testuak. Horrez gainera, artikuluen irakurketa eta hausnarketaren laguntza izango da testu azterketa egiteko. (%20)

Kontzeptualizazioa: estrategia hau modu desberdinetan garatuko da, edukiaren arabera. Honako hauek izango dira jarduera nagusiak: gelan egiten diren jarduera eta ariketa guztiek izango dute ondoren hausnarketa eta teorizazioa; testuen behaketaren ondoren testu mota desberdinak eraikitze abilezien sintesiak egiten trebatuko dira ikasleak; ikasleek euren produkzioetan hartutako erabakiak arrazoitu eta justifikatuko dituzte. (%30)

Esperimentazio aktiboa: estrategia hau honelako jardueren bidez garatuko da: ikasleak testuen produkzioan trebatuko dira; haur hezkuntzako haurren produkzioak aztertu eta baloratuko dituzte; testuak ekoizteko abilezien entrenamendua egingo dute. (%40)

Ebaluazioa

Ebaluatze teknika naugusi hauek izango dira kontuan:

- 1- AZTERKETA %35 (BG2, BG3, BG4)
- 2- HITZALDIA %20 (BG2, GO)
- 3- UMEEN EKOIZPENEN AZTERKETA %30 (BG1, BG2, BG3, BG4)
- 4- DIZIPLINARTEKO LANA %15 (BG3)

Oharra: Ebaluatzeak izateko entregatutako lan edo jarduera guztiek bete behar dituzte gutxienezko baldintza batzuk, bai arlo formalari dagokionez (aurkezpena, formatoa, iturburuak aipatuak eta erreferentziak e.b.), bai idatziko komunikazioari dagokionez (zuzentasuna, adierazpen eta erregistro egokiak). Baldintza minimo hauek bete ezean, jarduera ez da zuzenduko eta automatikoki ez ohiko deialdira pasatuko da.

Adimen artifizialaren erabilera:

Ez dago baimenduta adimen artifizialeko tresnak (AA) edo horien bidez sortutako edukiak erabiltzea.

Ezin da lan akademikorik kopiatu, plagiatu edo sortu Adimen Artifizialeko tresna baten bidez. Horrelako iruzurrezko praktikak egitea falta astuntzat hartuko da, Ikaslearen Araudiaren 75. artikuluen arabera, (Deustuko Unibertsitateko Aldizkari Ofiziala, 81. zk., 2023ko ekaina).

Dokumentazioa

1. Oinarrizko kontzeptuak lantzeko liburuxka
2. Testuak sortzeko sekuentzia didaktikoak
3. Testu azterketarako testu ereduak eta azteketa egiteko plantila
4. Haurren testuak aztertzeko materiala
5. Artikuluak irakurtzeko

BIBLIOGRAFIA

ADAM, J.M. (1997), Los textos: heterogeneidad y complejidad", *Didáctica de la lengua y la literatura para una sociedad plurilingüe del siglo XXI* (F.J. Cantero, A. Mendoza, C. Romea, eds.) Sociedad Española de Didáctica de la lengua y la Literatura, Universitat de Barcelona, 3-12. Or.

ADAM, J.M. (1992), *Les textes: types et prototypes*, Nathan Université, París.

ADAM, J.M. & REVAZ, F., (1996), "(Proto)Tipos: la estructura de la composición en los textos", *Textos*, 10, 9-30, or.

ÁLVAREZ ANGULO, Teodoro (2001): *Textos expositivo-explicativos y argumentativos*, Barcelona, Octaedro.

ARRIOLA, J., BILBAO L., IBARRA, J., IBARRA, G., LAUZIRIKA, A., MIELGO, R., OCERINJAUREGUI, J., OCIO, B. (2006) *Testugintza*, EUMBAM, Bilbao

BASSOLS, M. (2003) *Modelos textuales teoría y práctica*, Octaedro ediciones.

BATTANER, Paz; ATIENZA, Encarna; LOPEZ, Carmen; PUJOL, Mario: "Características lingüísticas y discursivas del texto expositivo", *Artículos de Didáctica de la Lengua y de la Literatura*, 1997, 13, 11-30.

BRONCKART, J.P. (2004) *Actividad verbal, textos y discursos. Por un interaccionismo socio-discursivo*. Fundación infancia y aprendizaje. 2004, Madrid.

DOLZ, Joaquim; VILÀ, Montserrat (Koord.)(1997): "L'oral formal", *Artículos*, 12 (monografikoa).

DOLZ, J & SCHNEWULY, B. (1997) "Géneros y progresión en expresión oral y escrita", *Textos*, 11, 77-98, or.

FAYOL, M., (1985), *Le récit et sa construction*, Delachaux et Niestlé, París.

IDIAZABAL, I. et al. (1990), *Hizkuntzaren psicopedagogia. Testu motak*. Labayru Ikastegia, Bilbao.

LARRINGAN, Luis Mari (1998): "Koherentzia, kohesioa eta konexioa nozioen egoera", in I. Idiazabal, L. M. Larrigan (Koor.), *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: baliabideak hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*, Vitoria-Gasteiz, Euskal Herriko Unibertsitatea, 11-46.

SALKIE, R., (1997), *Text and Discourse Analysis*, Routledge, London and New York

THORNBURY, S. (2005), *Beyond the sentence: introducing discourse analysis*, Oxford, MacMillan Education

WECK, G., (1991), *La cohesión dans les textes d'enfants*, Delachaux et Niestlé, París